. Isil-isilik dago bihotz barrenean
Aita laguntzeko prest behar dogunean.

**ZERGAITIK.... ZERGAITIK NEGAR EGIN?**
**MAITE GAITUAN AITA DAUKAGU GUREKIN.**

**1.** Gure bihotz erdian
geuk noiz entzungo zain,
pozik hitz egin nahirik
maitsunaren gain.

**2.** Negarretan negarrez
ta pozetan pozik,
ez dau bakarrik izten
semeen bihotzik.

**3.** Aitatxo zain egon da
isil luzaroan,
lagun egin gurarik
geuri zahartzaroan.

***4.Entzun nahi deutsut, Aita,***
otoitz isilean,
entzunaz bizi nadin
pozez pilpilean.

**5.** Bizi gaitezan, Aita,
maiteki munduan,
gero bizi gaitezan
maiteki zeruan.

A. Martzel

**6**. Emoidazu ahalmena
Aita Jaungoikoa,
beti Zu nigan entzun
ta ikustekoa.

**7**. Zu nigan zagozala
banago hain ziur,
ez naz ezeren kezka
ez inoren bildur.

**8**. Eskerrik asko, Aita,
gugan zagozana,
lotu nagizu estu
maiteki Zugana